



EUSKAL HERRIKO SURF FEDERAZIOA BASQUE COUNTRY SURFING FEDERATION

EUSKALSURF GAZTE SURFING ZIRKUITUA 2021

- EZAUGARRIAK

○ Egutegia:

- Uztailak 17-18 edo Uztailak 31- Abuztuak 1 (ordezkoa), La Arena.
- Urriak 30-31 edo Azaroak 6-7 (ordezkoa), Karraspio.

○ Zirkuituko ezaugarriak:

- Zirkuitu bateratua:
 - Zirkuitu bakarra 4 kategorietan:
 - GAZTEAK MUTILAK (-18)
 - GAZTEAK NESKAK (-18)
 - HAURRAK MUTILAK (-14)
 - HAURRAK NESKAK (-14)
 - Zirkuitu irekia.

○ Lehiaketa sistema:

- Kanporaketa bidezko lehiaketa.
- Egun batean edo bitan lehiatuko da: Larunbatean edo/eta igandean.

○ Zirkuituko sailkapen sistema:

2 froga izango dira (La Arena eta Karraspio):

- Bi emaitzak hartuko dira kontutan.
- Azken frogako emaitzak (Karraspio) balio bikoitza izango du.

Zirkuituko frogak irekiak izango dira, hala ere hondartzaren ezaugarriek, mareak edo eta argi orduak txapelketa bakoitzeko iraupena baldintzatu dezakete honekin batera parte hartzaileen kopurua ere mugatu daitekeelarik.

○ Seeding 2021:

- Lehen froga (La Arena): 2019ko zirkuituko sailkapenaren arabera.
- Bigarren froga (Karraspio): 2019ko zirkuituko sailkapenari 2021eko zirkuituko sailkapena gehituko zaio (La Arenako lehen frogarena).

Txandak froga bakoitzeko seedingaren arabera antolatuko dira.

○ Izen emateak:

Premio Euskadi del deporte 2002 a la entidad deportiva
Premio Cultural Award ASP 2.003



EUSKAL HERRIKO SURF FEDERAZIOA BASQUE COUNTRY SURFING FEDERATION

Epea:

Froga aurreko **asteazkenean (24:00h PM) itxiko dira.**

Parte hartzaile guztiek gauzatu beharko dute izen ematea aurre ikusitako epe eta bidearen arabera. Froga egunean izen ematea edo eta ordainketa gauzatzea onartezina izango da.

Arazo informatiko edo eta akatsen bat izango balitz izen ematean parte hartzaileak idatziz (email bitartez) jakinarazi beharko dio federazioari honekin batera arazoaren frogak atxikituz (akatsaren pantaila-argazkia edo ordaintze sistemaren agiria) izen emate epearen biharamunaren 14:00h baino lehen (froga aurreko ostegunean).

Erreklamazioa aurre ikusitako epe eta moduan egingo ez balitz parte hartzaileak frogan izen emateko aukera galduko luke.

Zenbatekoa:

20 €

Baldintzak- Izen emateko modua:

HURRENGO DATETAN ZEHAZTUKO DA

- EHSFkoak ez diren lizentziak: Federatu lizentzia eguneratua aurkeztu beharko da eskaneatuta eta email bitartez.

○ **Zigorrak:**

Froga ospatzen den bitartean txandaz kanpoko beste parte hartzaile batek (gainontzeko kategoria batean parte hartuta ere) lehiaketa oztopatuko balu eta identifikatu eta ohartarazpenari kasu egingo ez balio dagokion zirkuituko ondorengo bi frogetan parte hartzea debekatuko litzaioke.